

Pixa zutik ala eserita? Kaleko komunak

**Xabier Mikel
Errekondo**

Hil honen 13ko “Berria”n Iker Tuiak «Neska-mutil binomioa, komunetik behera» artikulua opartu zigun. Txinparta ateratzeko moduko eztabaidagaia zinez. Izan ere, txiza kontuak ez dira txantxe-takoak. Baina iruditzen zait ohituraren ohituraz ezer ez zaigula deigarri, kaletik lurrari begira goazela Groucho Marx nola inguruari eta errealtateari erreparatu gabe... kaka! zanpatu arte. Egungo gure komun ereduak herritarak bereizi egiten ditu, generoaren eta desgaitasunaren arabera ezberdindu. Eta berdintasuna kontu zabala izanik, komunak ere estu hartu behar ditugu komun unibertsalaren alde. «Komun komuna», aukera-berdintasuna denontzako; aulkian doana zein ez eta sexu bikoak.

Artikuluak, baina, berdintasuna genero ikuspegitik lantzen du, eta pixa komun berean egitea defendatu, biak eserita. Era berean, gizonak denen aurrean zutik egitea maskulinitatea areagotzea dela. Neskek ere zutik egin dezaten komun motak eta tutu bereziak badaude ordea, baina feminitatea areagotzen duten zalantzak baiditut, nago berdintasunari ez diola laguntzen aulkian doazen pertsonak baztertuko genituzkeelako, esaterako. Bestalde, eserita egitea ez da garbiaren pareko, ze nesken komunek mutilenak baino zikinagoak dute amaitzen (komunen enpresek hala diote). Beraz, komun zulo ilunetik ondorioa argia da, heziketa da gakoa. Suediako haurtzaindegietan haur gutiek eserita egiten dute txiza, eta gainera

diote zutik egiteak prostata arazoak sortzen dituela eta, aldiz, esertzeak bizitza sexual hobea. Beraz, ausarta da proposamena: sexu bateko zein besteko eta edozein mailatako dibertsitate funtzionalak dituzten herritarrek diseinu unibertsaleko komun bera erabiltzea eta pixa eserita egitea. Finean, nork ez du ezagutzen txiza eserita egiten duen mutilik? Ez da hainbestera, ohitura aldaketa baino ez. Heziketa da gakoa, bai garbiak izateko eta bai garbi jokatzeko. Alegia, lerroan zain gaudenean adinduari edo aulkian doanari baino pixalarri dagoenari aurea hartzen uzteko. ...Eta txiza txinpartarekin egin nahi duenak artasoroan beharko du usadio zaharrari helduz. •

Maskarak

Maidier Iantzi

Maskarak jartzen dira inauterietan gauzei buelta emateko, edo nor edo edozer irudikatu eta posible egiteko, baita, jakina, nor garen ezkutatu eta gaiztakeriak egiteko ere. Maskaraz bete zen astelehenean Iturengo plaza, asteartean Zubietakoa bezala, maskaraz eta gaiztakeriaz. Baina itsusi eta nazkagarriak izan arren, pertsonaia horiek bazuten zerbait erakarri nindutena: animalia izaera basati hori, askatasun erabatekoa. Barrukoa ateratzen zuten, jo, saltatu... Libre, umee bezala. Nahiz eta hamaika begi eta kamerak apuntatu, inor begira ez balute bezala. Zoragarria iruditu zitzaidan, eta ausartetan

ausartena, Zubietako Potruk. Karroza sinple-sinplea: zulo bat goian, ikusteko, eta behean bertze bat, erakusteko, zer eta barrabilak! Jendeak egin zituen algarek ez dute preziorik. «Ez nuen uste benetakoak zirenik!», oihukatu zuen emakume batek malkotan. Ukitzera ausartu zenean, sorpresa zuloan gorde zen. Kanpoan halako besta bazegoen, barrenekoa ikustekoa izanzen zen. Lagun hauek anonimoak ziren, mozorroe esker. Misterioitsuak: nor ziren? Mozorrorik gabe ez ziren ausartuko. Aukerak ematen dituzte maskarek, transformatu egiten gaituzte, umetan aspertzaren ez gintuen “The Mask” pelikulan bezala. Oraindik ikusten dut Jim Carrey

mozorro berde hura aurpegira itsatsita zurrunbilo batean bueltaka, era guztietako imintziotan, boterea eskuratzen. Baina ateratzen dugun indar edo ausardia hori barrenean daramagu, gurea da. Iturengo plaza erdian hango zakarkeriei begira, «ibiliko al nintzateke horrela?» galdetu nion nire buruari, eta pentsatu nuen inoiz ez dudala barruko animalia libre utzi. Izaki beldurgarriak ziren, baina seguru sentitu nintzen haien ondoan, konfiantza nuen gehienez ikara bat emanen zidatela, edo zikinduko nindutela. Okerragoak dira maskara politak, arriskutsuagoak egunero hainbat maskara eta makillaje kaparen azpian gordetzen diren espiritu txarrak. •